

**ERREGELAMENDUA, EUSKADIKO NORBERAREN KONTURAKO LANGILEEN EDO
LANGILE AUTONOMOEN KOLEKTIBOARENTZAKO LEHENTASUNEZKO ENPLEGUKO
GIZARTE AURREIKUSPENENKO PLANARENA, ENPLEGU-MODALITATEKO IZARPENSION
EPSV-N SARTUTAKOARENA**

I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

1. ARTIKULUA. IZENA

Prestazioen erregelamendu honen —aurrerantzean, Erregelamendua— bidez, ENPLEGU-MODALITATEKO IZARPENSION EPSVn —aurrerantzean, Erakundea— sartzen da **IZARPENSION AUTONOMOAK MISTOA 50 EUSKADIKO NORBERAREN KONTURAKO LANGILEEN EDO LANGILE AUTONOMOEN KOLEKTIBOARENTZAKO LEHENTASUNEZKO ENPLEGUKO GIZARTE AURREIKUSPENENKO PLANA** izeneko lehentasuneko enplegu-modalitateko plana —hemendik aurrera, Aurreikuspen Plana—.

2. ARTIKULUA. XEDEA

Erregelamendu honen xedea da Euskal Autonomia Erkidegoko norberaren konturako langileek edo langile autonomoek Erakundeari egin behar dizkioten ekarpenen erregimena arautzea, aitortzen diren prestazioen erregimena arautzea eta garatzea, eta prestazio horiek jasotzeko baldintzak ezartzea.

3. ARTIKULUA. APLIKATU BEHARREKO ARAUDIA

Erregelamendu hau eta horri dagokion Aurreikuspen Plana arautzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko agintari eskudunek borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeak erregulatzeko emandako lege- eta erregelamendu-araudian eta unean-unean indarrean dauden maila txikiagoko gainerako xedapenetan ezarritakoa hartuko da aintzat.

4. ARTIKULUA. HELBURUA

Erregelamendu honetan, garatzen duten estatutuetan eta aplikatu beharreko araudian ezarritakoaren arabera, Erregelamendu honetako Aurreikuspen Planean sartutako ohiko bazkideak kontingentzia hauetatik babesten ditu Erakundeak: erretiroa, ezintasun iraunkorra, heriotza, gaixotasun larria, luzaroko langabezia eta mendekotasuna. Onuradunak, berriz, heriotzaren kontingentziatik babesten ditu.

Kontingentzia horiek sortuz gero —erretiroa, ezintasun iraunkorra, heriotza, gaixotasun larria, luzaroko langabezia eta mendekotasuna—, ohiko bazkideak prestazio ekonomikoa kobratzeko eskubidea izango du, eta ohiko bazkide pasibo bihurtuko da. Dena dela, ohiko bazkidearen izaera berreskuratu ahal izango du, aplikagarri den araudiak ekarpen gehiago egiteko aukera ematen badu.

Heriotzaren kontingentzia gertatzen bada, onuradunek prestazio ekonomikoa kobartzeko eskubidea izango dute.

5. ARTIKULUA. MODALITATEA

Erregelamendu honek arautzen duen Aurreikuspen Plana, bazkideen artean dagoen loturaren ondorioz, enplegu-sistemaren modalitatean sartzen da, eta, hitzartutako ekarpen- eta prestazio-erregimenaren arabera, ekarpen zehatzekoa da.

6. ARTIKULUA. IRAUPENA

Aurreikuspen Planak iraupen mugagabea du; 2024ko abenduaren 10ean hasiko da, haren sorrera onartu eta Euskadiko Borondatezko Aurreikuspeneko Erakundearen Erregistroan inskribatu ondoren. Edozein unetan desegin eta likidatu ahal izango da, Erregelamendu honetan, Erakundearen estatutuetan eta aplikagarria den legerian xedatutakoaren arabera.

II. KAPITULUA. BAZKIDEAK ETA ONURADUNAK

7. ARTIKULUA. BAZKIDE- ETA ONURADUN-MOTAK

1. Hauek dira Aurreikuspen Planaren bazkide sustatzaileak:

- Arabako Merkataritza, Industria eta Zerbitzu Ganbera Ofiziala —Eduardo Dato kalea 38, Gasteiz—.
- Bilboko Merkataritza, Industria, Zerbitzu eta Itsasketa Ganbera Ofiziala — Recalde zumarkalea 50, Bilbo—.
- Gipuzkoako Merkataritza, Industria eta Itsasketa Bazkunde Ofiziala —Tolosa hiribidea 75, Donostia—.

2. Euskadiko norberaren konturako langileak edo langile autonomoak izango dira Aurreikuspen Planaren bazkide babesleak eta ohiko bazkideak, baldin eta, adierazitako kidetze-arauak betetzeaz gain, Aurreikuspen Plana mantentzen eta garatzen laguntzen badute, dagozkien ekarpenak eginez. Halaber, norberaren konturako langileek edo langile autonomoek prestazioren bat jaso ahal izango dute beraientzat edo beren onuradunentzat, une bakoitzean indarrean dagoen araudiak ezarritakoaren arabera.

3. Norberaren konturako langileen edo langile autonomoen enpleguak ere ohiko bazkide izan daitezke, beren enplegatzaileek Plan honetan sar baditzakete, enplegatzaileen ekarpenak eta, dagokionean, enpleguarenak berarenak jasotzeko.

Ohiko bazkideen modalitate hauek daude:

a) Ohiko bazkide aktiboak.

Norberaren konturako langileak edo langile autonomoak izango dira ohiko bazkide aktiboak, baita norberaren konturako langileen edo langile autonomoen enplegatuak ere, betiere izaera horrekin sartzen badira Aurreikuspen Planean, hori barne hartzen duen erakundearen gobernu-organoei onartu ondoren.

b) Ohiko bazkide pasiboak.

Ohiko bazkide aktiboak izaki gertaera eragilearen ondorioz prestazioaren zuzeneko titular bihurtzen direnak izango dira ohiko bazkide pasiboak, kontingentzia gertatu ondoren babestutako subjektuak baitira.

c) Etendura-egoeran dauden ohiko bazkideak.

Ohiko bazkide aktiboak izan ondoren ekarpenak erabat etenda dituzten ohiko bazkideak hartuko dira etendura-egoeran dauden ohiko bazkidetzat.

Etendura-egoeran dauden ohiko bazkideek dagokien prestazioa jasotzeko eskubidea izango dute, babestutako kontingentzia gertatzen bada.

Aurreikuspen Planean badago onuradunak sartzeko aukerarik. Ohiko bazkidearen heriotzaren kontingentzia gertatu ondoren ohiko bazkidearekin duten harremanagatik prestazioaren titular bihurtzen diren pertsona fisikoak dira onuradunak. Erregelamendu honetan izendatutako pertsonak izango dira onuradunak, eta ezarritako ordenaren arabera hartuko dira aintzat.

8. ARTIKULUA. BAZKIDE BABESLEEN ETA OHIKO BAZKIDEEN INTEGRAZIOA

- 1.** Aurreikuspen Planari beren borondatez atxikitzen zaizkion norberaren konturako langileak edo langile autonomoak bazkide babesle eta ohiko bazkide gisa sartuko dira, betiere Erakundearen gobernu-organoei onartu ondoren. Norberaren konturako langileak edo langile autonomoak atxikimendu-buletinak emango dizkiete beren enplegatuei, eta BGAEra bidaliko dituzte.
- 2.** Erakundearen gobernu-batzordeak —aurrerantzean, Gobernu Batzordea— aurkeztutako atxikipen-eskaerei buruzko ebazpena emango du egiten duen bilera bakoitzean.
- 3.** Gobernu Batzordearen erabakia idatziz jakinaraziko zaio atxikitzeko eskaera egin duenari.
- 4.** Erakundearen Batzar Nagusiari urtero emango zaio atxikipen horien berri.

III. KAPITULUA

9. ARTIKULUA. AURREIKUSPEN PLANARI EGINDAKO EKARPENEN ERREGIMEN OROKORRA

1. Norberaren konturako langileek edo langile autonomoek Erakundeak horretarako ezarritako kontu korronteetan sartuko dituzte egin beharreko ekarpen arruntak, Aurreikuspen Planari atxikitzeko buletinean ekarpen bakoitzerako adierazitako aldizkakotasunarekin. Norberaren konturako langileek edo langile autonomoek beren izenean egin ditzakete ekarpenak, edo enplegatzaileen prestazioak eta, dagokionean, beren ekarpenak jasotzeko enplegatzaileek Planean sartzen dituzten enplegatuen mesedetan. Aparteko ekarpenak ere egin ahal izango dituzte.
2. Ekarpen arrunten ordainketa atzeratzen bada, atzerapen horrek interesa sortu ahal izango du urtean, eta zenbatekoa Gobernu Batzordeak zehaztuko du une bakoitzean.
3. Ohiko bazkide aktiboarentzat, ohiko bazkide pasiboarentzat edo onuradunarentzat prestazio-eskubidea sortzen denean, behin betiko ordaindu gabe dauden ekarpenak ez dira sartuko eskubidea sortzen den une horretan dauden eskubide ekonomikoetan. Erakundeak ez ditu inola ere ez-ordaintze horiek bere gain hartuko.

10. ARTIKULUA. EKARPENEN INBERTSIOA

Bazkide babesleek eta ohiko bazkideek Aurreikuspen Planari egindako ekarpenak une bakoitzean indarrean dagoen araudian baimendutako mugen barruan inbertituko dira, Erregelamendu honetan aurreikusitakoaren arabera eta inbertsio-printzipioen deklarazioan zehaztutako irizpideei jarraituz, hartan Aurreikuspen Planari dagokionez jasotako inbertsio-profila kontuan hartuta. Orobat, errentagarritasunari eta arriskuari dagokienez aipatzekoak diren alderdiak nabarmendu beharko dira. Alderdi horiek inbertsio-printzipioen deklarazioan finkatuko dira, indarrean dagoen araudian aurreikusitakoaren arabera.

IV. KAPITULUA. PRESTAZIOAK

11. ARTIKULUA. PRESTAZIOAK

Kontingentziaren bat gertatu izanaren ondorioz ohiko bazkideei edo onuradunei aitortzen zaizkien eskubide ekonomikoak dira prestazioak. Hona hemen estalita dauden kontingentziak:

- a) Ohiko bazkidearen erretiroa.
- b) Ezintasun iraunkor osoa eta absolutua, eta baliaezintasun handia.

- c) Ohiko bazkidearen, edo onuradunaren, heriotza, baldin eta beste oinordeko batzuek edo izendatutako pertsonak alarguntasun-prestazioa jasotzeko eskubidea sortzen badu.
- d) Gaixotasun larria.
- e) Luzaroko langabezia.
- f) Mendekotasuna.

12. ARTIKULUA. PRESTAZIOEN FINANTZAKETA

1. Aurreikuspen Plana ekarpen zehatzeko sistema batean oinarritzen denez, Erregelamendu honetan aurreikusitako modu, epe eta baldintzetan kuantifikatu eta baloratuko da prestazio bakoitza. Balorazio hori kapitalizazio-prozesu indibidual eta erabat finantzarioaren emaitza izango da. Kapitalizazio-funts bat eratuko da, osagai hauekin: ekarpen guztiak —prestazioak eta mobilizazioak kenduta—, inbertitutako baliabideek sortutako etekinak, eta aktiboen gainbalioak edo minusbalioak — kalkulua egiten den eguneko merkatu-prezioan baloratuak, edo, halakorik ez badago, haien balio efektiboan, zuhurtasunik handieneko irizpideen arabera eta oro har onartutako balorazio-metodoak aplikatuta—, Aurreikuspen Planean ezarritako administrazio-gastuen zenbatekoa kenduta.
2. Prestazioaren zenbatekoa zehazteko, ohiko bazkideak edo onuradunak kontingentzia gertatzen den unean dituen eskubide ekonomikoak hartuko dira aintzat. Eskubide horiek ekarpenen, ateratzen eta inbertitutako baliabideek sortutako errenten zenbatekoan eta efektu-datan oinarrituta eratzen dira, eta, dagokionean, izandako kalteak eta gastuak aintzat hartuta. Hori dela eta, ohiko bazkideak edo onuradunak kontingentzia gertatzen den unean dituen eskubide ekonomikoen balioaren arabera izango da prestazioaren zenbatekoa. Heriotzaren kasuan, onuraduna zehazten denean sortuko dira eskubide ekonomikoak, baldin eta, azken kasu horretan, identifikatzeko denbora luzeagoa behar duen inguruabarririk badago.
3. Pertsonalak eta besterenezinak izango dira eskubide ekonomikoak. Hortaz, ezin izango dira osorik edo partzialki laga, ezin izango dira kontratu baten berme gisa erabili, eta ezin izango zaie aplikatu kenkaririk, atxikipenik, konpentsaziorik, enbargarik edo oztopo judizial nahiz administratiborik, harik eta kontingentzia gertatu eta dagokion prestazioa kobratzeko eskatzen den arte edo eskubide ekonomikoak gauzatzeko moduan izan arte, aplikatzekoa den araudian xedatutakoaren arabera.

Kontingentzia gertatu eta prestazioa kobratzeko eskaera egindakoan, enbargarik edo oztopo judizial nahiz administratiborik egonez gero, epaitegi edo administrazio eskudunak ezarritakoa beteko da.

Heriotzaren kasuan, enbargarik edo oztopo judizial nahiz administratiborik badago, epaitegi edo administrazio eskudunak ezarritakoa beteko da, onuradunei dagozkien hondar-eskubide ekonomikoak jakinarazi aurretik, beharrezkoa izanez gero.

13. ARTIKULUA. PRESTAZIOAK ESKATZEA

Prestazioak jasotzeko, ezinbesteko baldintza izango da ohiko bazkideek eta prestazioak jasotzeko eskubidea duten onuradunek eskatzea, edo zuzenean, edo beren legezko ordezkariaren bidez.

Eskaera idatziz egingo zaio Erakundearen Gobernu Batzordeari, hari baitagokio prestazioak jasotzeko eskubidea aitortzeari buruz ebaztea.

Eskabidearekin batera, kontingentzia gertatu izana egiaztatzeko behar den dokumentazio guztia, osoa eta nahikoa aurkeztu beharko da, eta, behar denean, pertsona onuraduna dela egiaztatzekoa ere bai, Erakundeak eskatutakoaren arabera.

Erakundeak galdatutako dokumentazio guztia ematen denean ulertuko da prestazioa eskatu dela.

14. ARTIKULUA. PRESTAZIOAK ORDAINTZEA

1. Erretiroagatiko, baliaezintasunagatiko, ezintasun iraunkorragatiko eta heriotzagatiko prestazioak aldi baterako finantza-errentak izango dira, eta 15 urtez ordainduko dira gutxienez.

Aurreko paragrafokoa gorabehera, erretiroagatiko, baliaezintasunagatiko, ezintasun iraunkorragatiko eta heriotzagatiko prestazioa kapital moduan jaso ahal izango da, baldin eta, kontingentzia gertatzen denean, eskubide ekonomikoen zenbatekoa ez bada ezkontidea ardurapean izanda erretiratzeagatik Gizarte Segurantzaren sistemak ematen duen urteko gutxienerako erretiro-prestazioa halako bi eta erdi baino handiagoa.

Halaber, eskubide ekonomikoen zenbatekoaren ehuneko hogeira arte kapital gisa jaso ahal izango da erretiroagatiko, baliaezintasunagatiko, ezintasun iraunkorragatiko eta heriotzagatiko prestazioa. Kapital gisako kobrantza horren ondorioz gertatzen den murrizketa ez da kontuan hartuko aurreko paragrafoan eskubide ekonomikoen zenbatekoa zehazteko aurreikusitako kalkuluan.

2. Gaixotasun larriagatiko, luzaroko langabeziagatiko eta mendekotasunagatiko prestazioak borondatezko gizarte-aurreikuspenaren arloan Erakundearen indarrean dagoen araudiak horietako bakoitzerako zehazten duen moduan kobratuko dira.
3. Prestazioak, errenta gisa nahiz kapital gisa, kontu korrontean ordainduko dira. Prestazioa jasotzeko eskubidea duen bazkideak edo onuradunak kontu korrontean titularra izan beharko du.

4. Prestazioak, behin ordainduta, atzeraezinak dira, salbu eta Erakundeari egoztekoa den akats baten ondorioz ordaindu badira. Prestazioak ez dira arrazoi fiskalengatik edo bestelako arrazoiengatik itzuliko.
5. Prestazio edo mobilizazio batean aplikatuko den likidazio-balioa eragiketa-datako egun berari dagokiona izango da; hau da, prestazioa kobratzeko eskubidea edo, dagokionean, mobilizazio-eskubidea aitortzen den datari dagokiona.
6. Prestazioak ordaintzeko, prestazioa kobratzeko eskubidea aitortzen den unean indarrean dagoen araudia aplikatuko da, kontingentzia zer motatakoa den eta noiz gertatu den kontuan hartu gabe.

15. ARTIKULUA. ERRETIROAGATIKO PRESTAZIOA

1. Gizarte Segurantzak erretiro-pentsioa ematen dionean sortuko zaio ohiko bazkideari prestazio ekonomikoa jasotzeko eskubidea, edo, dagokionean, erretiroa hartzeko legezko adina betetzen duenean, betiere une horretan Gizarte Segurantzaren alta emanda ez badago.
2. Erretiro-prestazioa eskatzen duen ohiko bazkideak agiri hauek aurkeztu beharko ditu eskabidearekin batera:
 - a) Bazkidearen NANaren fotokopia
 - b) Gizarte Segurantzak erretiro-egoera aitortzeko emandako ebazpena edo ziurtagiria, dagokionean
 - c) Gobernu Batzordeak beharrezkotzat jotzen duen beste edozein agiri

16. ARTIKULUA. EZINTASUN IRAUNKOR OSO ETA ABSOLUTUAGATIKO, ETA BALIAEZINTASUN HANDIAGATIKO PRESTAZIOA

1. Gizarte Segurantzak ezintasun iraunkor osoagatiko edo absolutuagatiko nahiz baliaezintasun handiagatiko pensioa behin betiko ematen dion unetik aurrera sortuko zaio ohiko bazkideari bere prestazio ekonomikoa jasotzeko eskubidea.
2. Ezintasun iraunkor osoagatiko edo absolutuagatiko nahiz baliaezintasun handiagatiko prestazioa eskatzen duen ohiko bazkideak agiri hauek aurkeztu beharko ditu eskabidearekin batera:
 - a) Bazkidearen NANaren fotokopia
 - b) Gizarte Segurantzak ezintasun iraunkor osoaren edo absolutuaren nahiz baliaezintasun handiaren egoera aitortzeko emandako ebazpena edo ziurtagiria, dagokionean
 - c) Gobernu Batzordeak beharrezkotzat jotzen duen beste edozein agiri

3. Ezintasun iraunkor osoagatiko edo absolutuagatiko nahiz baliaezintasun handiagatiko prestazioa kobratzen hasi den bazkidea lanera eta Aurreikuspen Planera itzultzen bada eta ondorengo kontingentziaren baten ondorioz beste prestazio bat jasotzeko eskubidea badu, prestazio berria kobratzeko eskubidea aitortzen zaion unean dituen eskubide ekonomikoen gainean kalkulatu da prestazioaren zenbatekoa.

17. ARTIKULUA. HERIOTZAGATIKO PRESTAZIOA

1. Ohiko bazkide aktibo, pasibo edo etendura-egoerakoaren onuradunak edo onuradunek haren eskubide ekonomikoak jasotzeko eskubidea izango dute, ohiko bazkidea hiltzen den unetik aurrera.
2. Onuradunen zerrendaren agirian berariaz izendatutako onuradunek izango dute ohiko bazkidearen heriotzagatiko prestazioa jasotzeko eskubidea.
3. Onuradunik izendatu ezean, edo onuraduna ohiko bazkidea baino lehen edo aldi berean hiltzen bada, hauek izango dira onuradunak, hurrenez hurren:
 - a) Ezkontidea
 - b) Seme-alabak, proportzio berean
 - c) Gurasoak, proportzio berean
 - d) Kausatzailearen legezko oinordekoak
4. Prestazioen ordainketa osoa egin aurretik onuraduna hiltzen bada, geldikina haren legezko oinordekoei emango zaie.
5. Onuradun bat baino gehiago badago, bakoitzari dagozkion eskubide ekonomikoen arabera zehaztuko da prestazioa kobratzeko modua, Erregelamendu honen 14. artikuluan ezarritakoari jarraituz.
6. Heriotzagatiko prestazioa eskatzen duen onuradunak agiri hauek aurkeztu beharko ditu eskabidearekin batera:
 - a) Hildako kausatzailearen heriotza-ziurtagiria
 - b) Onuradunaren nortasuna eta izaera egiaztatzen dituen dokumentazioa, bai eta NANA ere
 - c) Gobernu Batzordeak beharrezkotzat jotzen duen beste edozein agiri edo frogabide

18. ARTIKULUA. GAIXOTASUN LARRIAGATIKO PRESTAZIOA

1. Ohiko bazkide orok jaso ahal izango du prestazio hori, gaixotasun larria hauetakoren batek badu: bazkideak berak, ezkontideak edo izatezko bikotekideak —izatezko bikotea araudi aplikagarriaren arabera eratuta badago—, lehen mailako aurreko zein ondorengo ahaideek, bazkidearekin bizi diren pertsonak eta tutoretza- edo harrera-erregimenean haren mende daudenek.
2. Aplikatu beharreko araudiak bestelako baldintzarik edo betekizunik ezarri ezean, haxe joko da gaixotasun larritzat, betiere gaixoa artatzen duten osasun-erakundeetako zerbitzu eskudunen mediku-ziurtagiriaren bidez egiazta badaiteke: gaitz edo lesio fisiko edo mental oro, bazkidea ohiko okupazioan edo jardueran aritzeko ezgaitzen duena, gutxienez hiru hilabetez jarraian, edo eskatzen duena ospitale batean kirurgia handiko ebakuntza klinikoa edo tratamendua egitea.
3. Aurreko supostuak gaixotasun larritzat hartuko dira, baldin eta eragiten ez badute bazkideak, Gizarte Segurantzaren erregimenaren arabera, edozein mailatako ezintasun iraunkorragatiko prestazioa jasotzea, eta gastuak handitzeagatik edo diru-sarrerak txikitzeagatik bazkidearen errenta erabilgarria murrizten bada —egoera hori behar bezala egiaztatu behar da—. Ondore horietarako, onartu egingo da gastu-aurrekontuak aurkeztea.
4. Gaixotasun larriagatiko prestazioa eskatzen duen ohiko bazkideak agiri hauek aurkeztu beharko ditu eskabidearekin batera:
 - a) Bazkidearen NANaren fotokopia
 - b) Gaixotasun larria egiaztatzen duen mediku-ziurtagiria, arestian xedatutakoaren arabera
 - c) Gobernu Batzordeak beharrezkotzat jotzen duen beste edozein agiri edo frogabide

19. ARTIKULUA. LUZAROKO LANGABEZIAGATIKO PRESTAZIOA

1. Bazkide aktibo orok jasoko du prestazio hori, luzaroko langabezia-egoera gertatuz gero, aplikagarri den araudian kontingentzia horren inguruabar objektiboek irauten duten bitartean. Araudi aplikagarriak beste baldintzarik edo betekizunik ezarri ezean, ondore horietarako norberaren konturako langileek edo langile autonomoek jarduera etetea hartuko da luzaroko langabeziatzat, betiere baldintza hauek betetzen badituzte:
 - a) Legezko langabezia-egoeran egotea.
 - b) Ordaindutakoaren araberako langabezia-prestazioak jasotzeko eskubiderik ez izatea, edo, izanez gero, urtebetez kobratuta edo prestazio horiek agortuta

- izatea. Langabeziako hamabi hilabeteak elkarren segidakoak ez badira ere, urtebetea kontatu ahal izango da.
- c) Eskabidea egiten den unean dagokion enplegu-zerbitzu publikoan izena emanda egotea, lan-eskatzaile gisa.
2. Bazkideak prestazioa ordainketa bakarrean jasotzeko eskatu ezean — indarrean dagoen legeriaren arabera enplegua sustatzeko xede zehatzarekin—, hileko errentaren modalitatean ordainduko da prestazioa, eta ordaindutakoaren arabera prestazio-ordainsarien baliokidea izango da hileko errentaren zenbatekoa. Hileko errenta baliokidea zehazteko, irizpide hauek aplikatuko dira:
- a) Langabeziagatiko prestazio kontributibo publikoa jasotzen bada, jasotako prestazio kontributiboaren parekoa eta hasierako zenbateko gordin berekoa izango da gehieneko errenta baliokidea.
 - b) Prestazio kontributiboaren zenbatekoa murrizten bada, murrizketa hori konpentsatu egin ahal izango da, prestazio osagarria handituz, gehienez murrizketa berdindu arte.
 - c) Prestazio kontributiboa kobratzeko eskubiderik ez badago, gehieneko prestazio baliokidea kalkulatzeko, sistema publikoari egindako kotizazioak hartuko dira aintzat, prestazio kontributiboa kobratzeko eskubidea izateko baldintzak bete balira bezala.
3. Luzaroko langabeziagatiko prestazioa eskatzen duen ohiko bazkideak agiri hauek aurkeztu beharko ditu eskabidearekin batera:
- a) Bazkidearen NANaren fotokopia
 - b) Lan-bizitzari buruzko txostena
 - c) Erakunde publiko eskudunaren ziurtagiria, bazkidea lan-eskatzaile gisa izena emanda dagoela egiaztatzen duena. Norberaren konturako langileek edo langile autonomoek baja eskatu beharko dute ekonomia-jardueren gaineko zergan eta dagokien Gizarte Segurantzaren erregimenean, eta aurkeztu egin beharko dute baja hori.
 - d) Gobernu Batzordeak beharrezkotzat jotzen duen beste edozein agiri edo frogabide

20. ARTIKULUA. MENDEKOTASUNAGATIKO PRESTAZIOA

1. Ohiko bazkide orok jaso ahal izango du prestazio hori, adinagatik, gaixotasunagatik edo desgaitasunagatik eta autonomia fisiko, mental, intelektual edo sentsorialaren gabeziarekin edo galerarekin lotuta, beste pertsona baten edo batzuen arreta edo eguneroko bizitzako oinarritzko jarduerak egiteko laguntza handia behar badu, edo,

adimen-desgaitasuna edo gaixotasun mentala duten pertsonen kasuan, autonomia pertsonalerako beste laguntza batzuk behar baditu.

2. Mendekotasunagatiko prestazioa aitortzeko, mendekotasunari buruz indarrean dagoen legerian xedatutakoa bete behar da. Legeria horretan araututako mendekotasun larriaz edo mendekotasun handiaz ari gara, eta administrazio eskudunak ondore horietarako emandako ebazpenaren bidez aitortuko da.
3. Bazkideak berak edo ezkontideak izan dezakete mendekotasuna, edo haien ardurapean dagoen hirugarren mailarainoko zuzeneko edo zeharkako ahaide batek, edo tutoretza- edo harrera-erregimenean haien ardurapean dagoen pertsona batek.
4. Prestazioa hileko errenta gisa ordainduko da, urtean hamabi ordainsaritan. Zenbatekoa Gizarte Segurantzak ezkontidea ardurapean duen pertsonari ematen dion urteko gutxieneko pentsioa halako bost izango da gehienez.
5. Mendekotasunagatiko prestazioa eskatzen duen ohiko bazkideak agiri hauek aurkeztu beharko ditu eskabidearekin batera:
 - a) Bazkidearen NANaren fotokopia
 - b) Mendekotasun-egoera zehazteko eskumena duen organoaren ebazpena edo irizpena, mendekotasunari buruz indarrean den legeriaren arabera
 - c) Gobernu Batzordeak beharrezkotzat jotzen duen beste edozein agiri edo frogabide

V. KAPITULUA. AURREIKUSPEN PLANAREN JARRAIPEN BATZORDEA

21. ARTIKULUA. JARRAIPEN BATZORDEAREN OSAERA

1. Jarraipen-batzordea —aurrerantzean, Jarraipen Batzordea— zortzi kidek osatuko dute, honela banatuta:
 - a) Aurreikuspen Planaren bazkide sustatzaileen izenean:
 - Arabako Merkataritza, Industria eta Zerbitzu Ganbera Ofizialak izendatutako kide bat
 - Bilboko Merkataritza, Industria, Zerbitzu eta Itsasketa Ganbera Ofizialak izendatutako kide bat
 - Gipuzkoako Merkataritza, Industria eta Itsasketa Bazkunde Ofizialak izendatutako kide bat
 - b) Ohiko bazkideen ordezkari gisa, bost kide. Bazkide sustatzaileek izendatuko dituzte kide horiek, aho batez, Aurreikuspen Planeko ohiko bazkideen artean. Horretarako, izendapena egin baino hiru hilabete lehenago gutxienez, gutxi jota hilabeteko epea egongo da, izendapen horretarako hautagaiak aurkezteko.

Hautagaien proposamenak Erakundeari jakinarazi behar zaizkio, bazkide sustatzaileek hautagaiak izendatzeko ezarritako eguna baino 15 egun lehenago gutxienez.

2. Jarraipen Batzordeko kideek batzordeko presidentea eta idazkaria aukeratuko dituzte beren artean.
3. Aurreikuspen Planaren bazkide sustatzaileek Jarraipen Batzordean dituzten ordezkariak ez dute zertan izan Aurreikuspen Planeko ohiko bazkideak.
4. Jarraipen Batzordeko kide guztiek bete beharko dituzte une bakoitzean indarreko araudian dagokien kargua betetzeko ezarritako trebakuntza- eta prestakuntza-baldintzak.
5. Jarraipen Batzordeko kideen eginkizuna bateraezina da Aurreikuspen Plana barne hartzen duen Erakundeako ordaindutako eginkizunarekin; izan ere, ez da ordainsaririk jasoko kargu horietan guztietan aritzeagatik.
6. Nolanahi ere, Jarraipen Batzordearen osaeran, emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatuaren printzipioari jarraituko zaio, Aurreikuspen Planean duten presentziaren ehunekoa kontuan hartuta.

22. ARTIKULUA. JARRAIPEN BATZORDEKO KIDEEN AGINTALDIA, IZENDAPENA, PLAZA HUTSAK ETA ORDEZKAPENA

1. Jarraipen Batzordeko kideak lau urterako aukeratuko dira. Dena dela, nahi adina aldiz berrautatu ahal izango dira, iraupen bereko epealdietarako.
2. Lau urteko epean hutsik geratzen diren postuak Jarraipen Batzordeak berak beteko ditu, postua uzten duen kidea izendatu duenak kide berria proposatuz. Halaber, Jarraipen Batzordeko kideak izendatu dituenari horiek ordezkatzeko eska dakiok.

Jarraipen Batzordeko postu hutsak bete eta kideak ordezkatu behar badira, lau urteko epealdia osatzeko geratzen den denboran jardungo dute kide berriek.

23. ARTIKULUA. JARRAIPEN BATZORDEAREN EGINKIZUNAK

Hauek dira Jarraipen Batzordearen eginkizunak:

- a) Aurreikuspen Planaren kudeaketaren jarraipena egitea.
- b) Aurreikuspen Planaren Erregelamendua hasieran onartzea eta aldatzea.
- c) Bazkideen interesen alde jokatzeko, zehurtiaz, arduraz eta erantzukizunez.
- d) Aurreikuspen Planaren kaudimena eta oreka zaintzea, eta aitortutako prestazioei eta erantzuteko gaitasuna dagoela ziurtatzea.

- e) Erregelamendu hau betetzea eta betearaztea.
- f) Aurreikuspen Plana lekualdatu, bat egin, zatitu edo azkentzeko erabakia hartzea.
- g) Dagokionean, erakundearen gobernu-organoetan parte hartzea.
- h) Inbertsio-printzipioen idatzizko deklarazioaren berrikuspena proposatzea eta, aldian-aldian, planteatzea.
- i) Aurkezten zaizkion erreklamazio guztiei erantzutea eta izapideak egitea.
- j) Aurreikuspen Plana borondatezko gizarte-aurreikuspeneko zer erakundetan sartuko den erabakitzea.
- k) Legez ezartzen diren gainerakoak.

24. ARTIKULUA. JARRAIPEN BATZORDEAREN DEIALDIA ETA BILERA

1. Presidenteak deituko du Jarraipen Batzordea, egoki irizten dionean edo gutxienez kideen herenak eskatzen duenean. Deialdia idatziz jakinaraziko zaio kide bakoitzari, bilera egin baino bost egun baliodun lehenago, gutxienez, eta gai-zerrenda erantsiko zaio.

Kide bakoitzari jakinarazpen pertsonala helarazteko, posta elektronikoa erabili ahal izango da; kide bakoitzak emanda duen helbide elektronikora bidaliko da jakinarazpena. Batzordeko kideen herenek eskubidea izango dute gai-zerrendan puntuak sartzeko eskaera egiteko; horretarako, idatziz jakinaraziko diote presidenteari, bilera egin baino hiru egun baliodun lehenago.

2. Jarraipen Batzordea Erakundearen egoitzan edo aukeratzen den lekuan bilduko da, urtean bitan gutxienez, seihileko desberdinetan.
3. Jarraipen Batzordea baliozkotasunez eratzeko, beharrezkoa izango da Aurreikuspen Planaren bazkide sustatzaileen ordezkari den kide bat eta ohiko bazkideen ordezkari diren bi kide gutxienez agertzea bilerara.
4. Jarraipen Batzordeko kideek beste kide baten esku utzi ahal izango dute bileran parte hartzeko eta botoa emateko ahalmena. Eskuordetza idatziz jasoko da eta Batzordearen bilera bakoitzerako egin beharko da.
5. Jarraipen Batzordearen bilerak telefonoz, bideokonferentziaz edo antzeko beste edozein sistemaren bidez egin ahal izango dira; hau da, kide batek edo hainbatek sistema horietako baten bidez parte hartu ahal izango dute bileretan. Horretarako, bilera fisikoa non egingo den adierazteaz gain, telefono-konferentziaz, bideokonferentziaz edo antzeko sistema baten bidez ere parte hartu ahal izango dela adieraziko da bileraren deialdian, bai eta horretarako zer baliabide tekniko beharko diren ere. Baliabide tekniko horiek bileran izan beharko dira eta, kasu guztietan, aukera eman beharko dute parte hartzen ari diren kideak ezagutzeko eta

identifikatzeko, eta partaide guztien arteko zuzeneko eta aldi bereko komunikazioa bermatzeko, bi noranzkoetan eta denbora errealean. Kasu horretan, Jarraipen Batzordearen bilera bakartzat joko da, eta Erakundearen helbidean egindakotzat.

25. ARTIKULUA. JARRAIPEN BATZORDEAREN ERABAKIAK

1. Jarraipen Batzordeak indarreko araudian ezarritako gehiengoaren araubidearen arabera hartuko ditu erabakiak. Gehiengo horiez gain, ohiko bazkideen ordezkari gehienek aldeko botoa beharko da erabakiak hartzeko.
2. Jarraipen Batzordeko kide bakoitzak boto bat izango du, eta, dagokionean, botoa eskuordetu dioten kideena. Eskuordetza hori idatziz egin behar da, eta bilera baterako balioko du. Gainera, edozein unetan ezeztatu ahal izango da.
3. Idazkariak Jarraipen Batzordearen eztabaiden eta erabakien akta egingo du, eta Erakundearen akta-liburuan jasoko du. Bileran idazkari-lanetan aritu den kideak sinatuko du akta, eta presidentek oniritzia eman beharko dio. Akta Jarraipen Batzordearen bileran bertan onartuko da, bilera egin ondoren, edo, bestela, hurrengo bileran.
4. Jarraipen Batzordeak dagokion akta-liburua eramango du.

VI. KAPITULUA. BESTE XEDAPEN BATZUK

26. ARTIKULUA. OHIKO BAZKIDEEI INFORMAZIOA EMATEA

Ohiko bazkide eta onuradun bakoitzari informazio hau bidali behar zaio, sei hilean behin gutxienez:

- a) Bere eskubide ekonomikoen balioari, Planari atxikitako ondarearen zati alikuoten kopuruari eta zati alikuota bakoitzaren balioari buruzko ziurtagiria, epealdiaren hasieran.
- b) Erretiro-datan estimatutako hileko pentsioaren zenbatekoa, nabarmenduta, Erregelamendu honetan ezarritako pentsio-formularen arabera.
- c) Epealdian zuzenean edo egotzita egindako ekarpenak, bai eta egindako mobilizazioak eta emandako prestazioak ere.
- d) Bere eskubide ekonomikoen balioa, Planari atxikitako ondarearen zati alikuoten kopurua eta zati alikuota bakoitzaren balioa, epealdiaren amaieran.
- e) Kudeaketa-txosten laburtua, Erakundeak bazkideekin harreman telematikoak duenean izan ezik.

27. ARTIKULUA. ADMINISTRAZIO-GASTUAK

Aurreikuspen Planari dagozkion administrazio-gastuak Aurreikuspen Planari atxikitako ondarearen % 0,50ekoak izango dira.

28. ARTIKULUA. ESKUBIDE EKONOMIKOAK MOBILIZATZEA

1. Ohiko bazkide aktiboek beren alde aitortuta dituzten eskubide ekonomikoak lehentasunezko enpleguko gizarte-aurreikuspeneko beste plan batzuetara bakarrik eraman daitezke.
2. Bazkide pasiboek eta Erakundeko prestazioen onuradunek ezin izango dituzte, inola ere, beste BGAE batera mobilizatu beren eskubide ekonomikoak. Dena den, estalitako kontingentziaren bat gertatu eta Erakundeko bazkide pasibo edo onuradun batek prestazio bat kapital gisa kobratzeko eskubidea badu, prestazio hori kobratzea edo bere eskubide ekonomikoak beste BGAE batera eramatea aukeratu ahal izango du, Erregelamendu honetan ezarritako mugen barruan.
3. Etendura-egoeran dauden ohiko bazkideek beren eskubide ekonomikoak mobilizatzeko eskubidea erabili ahal izango dute. Mobilizazioan, eskubide guztiak erabili beharko dira, eta lehentasunezko enpleguko gizarte-aurreikuspeneko beste plan batera soilik eraman daitezke.

VII. KAPITULUA. ERREGELAMENDUA ALDATZEA ETA PLANA AZKENTZEA

29. ARTIKULUA. ERREGELAMENDUA ALDATZEKO ETA BESTE BGAE BATERA MOBILIZATZEKO PROZEDURA

1. Aurreikuspen Planaren Erregelamendua aldatzeko eskumena Erakundearen Gobernu Batzordeak izango du, emandako botoen gehiengo soilez hartutako erabakiaren bidez. Jarraipen Batzordeari dagokio Aurreikuspen Planaren aldaketari hasierako onespina ematea, emandako botoen bi herenen gehiengoarekin.
2. Aurreikuspen Planaren Erregelamendua eraginkortasunez aldatzeko, borondatezko gizarte-aurreikuspenaren arloan eskumena duen Eusko Jurlaritzako sailaren baimena beharko da, eta aldaketa Euskadiko Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundearen Erregistroan inskribatu beharko da.
3. Aurreikuspen Plan honetako bazkide babesleek hartutako erabakiaren bidez, beste BGAE batera mobilizatu ahal izango dira bai Aurreikuspen Plana bera, bai hari dagozkion edo atxikita dauden baliabide ekonomiko guztiak, betiere Plana BGAEan sartzeko akordioan aurreikusitako baldintzetan eta aplikatzekoak diren legezko eta arauzko xedapen guztiak betez.

30. ARTIKULUA. AURREIKUSPEN-PLANA AZKENTZEA

Aurreikuspen Plana arrazoi hauengatik azkenduko da:

- a) Ohiko bazkiderik eta onuradunik ez izateagatik.
- b) Gobernu Batzordearen erabakiaren ondorioz. Erabaki hori hartzeko, aldez aurretik eta banan-banan bermatu beharko dira eragindako prestazioak, eta ohiko bazkideen eta onuradunen eskubide ekonomikoak Erakundearen beste aurreikuspen-plan batean edo beste BGAE batean integratu.
- c) Estatutuetan edo aplikagarri den araudian aurreikusitako beste edozein arrazoiengatik.

VIII. KAPITULUA. GATAZKAK ETA ERREKLAMAZIOAK EBAZTEA

31. ARTIKULUA. GATAZKAK ETA ERREKLAMAZIOAK

Ohiko bazkideek, onuradunek edo horien eskubidedunek legez aitortuta dituzten interes eta eskubideen inguruko kexa eta erreklamazioak aurkeztu ahal izango dituzte, idatziz, Gobernu Batzordean.

Gobernu Batzordearen erabakia gorabehera, babes judizialera jotzeko aukera egongo da, baita administrazioaren kontrol- eta gainbegiratze-funtzioak gauzatzekoa ere.

XEDAPEN GEHIGARRI IRAGANKORRA. Jarraipen Batzordearen hasierako osaera

Hasieran, Aurreikuspen Planaren bazkide sustatzaileen ordezkariak soilik osatuko dute Jarraipen Batzordea, Erregelamendu honen 21. artikuluko 1. apartatuko a) atalean xedatutakoaren arabera.

Aurreikuspen Plana onartu eta Euskadiko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundearen Erregistroan inskribatu eta gehienez ere urtebete igaro ondoren, ohiko bazkideen ordezkaritzan arituko diren kideak izendatu beharko dira, Erregelamendu honen 21. artikuluko 1. apartatuko b) atalean xedatutakoaren arabera.